Bizkaia
gufe-ifas

## IRAGARKIA

**Administrarien kategoriako 2016 eta 2017ko enplegu publikoaren eskaintzetako eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea.**

2022ko martxoaren 24an, 58 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, berriz argitaratu ziren, osorik, administrarien kategoriako deialdia arautzen duten oinarriak, GUFEren Gobernu Batzaren 2022ko martxoaren 11ko Erabakiaren bidez onartutakoak.

Erabaki horren arabera, eutsi egin behar zaie aipatutako deialdia garatzean sortutako egintzei, eta, bereziki, aurkeztutzat jo behar dira orduan adierazitako egunera arte jaso diren izangaien eskabide-orriak eta eskaerak, onartuak izateko aurkeztu dituztenak.

Oinarriek ezartzen duten bezala, eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko da deialdia BOEn argitaratu eta hurrengo egunean.

Horrela, bada:

- Eskaera aurkeztu zutenek ez dute zertan orain egin behar. Eskabideak aurkezteko epe berria amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, eta deialdian inskribatutako izangai guztiak sartuko dira zerrenda horietan.

- Oinarriak berriro argitaratzeak merezimenduak zenbatzeko beste epemuga

## ANUNCIO

**Nueva apertura de plazo de presentación de instancias correspondiente a las ofertas de empleo público 2016 y 2017 para la categoría de Administrativo/a.**

Con fecha 24 de marzo de 2022, en el Boletín Oficial de Bizkaia número 58, se procedió a la nueva publicación íntegra de las bases que rigen la convocatoria para la categoría de Administrativo/a, aprobada por Acuerdo de la Junta de Gobierno del IFAS de fecha 11 de marzo de 2022.

Dicho acuerdo prevé la conservación de los actos producidos, en particular tener por presentadas las instancias y solicitudes de admisión de las personas candidatas que hubieren sido depositadas hasta la fecha entonces señalada.

Tal y como establecen las bases, se abrirá un nuevo plazo de presentación de instancias el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOE.

Así las cosas:

- Las personas que ya presentaron la instancia no tienen que hacerlo ahora. Una vez finalizado el nuevo plazo de presentación de instancias se publicarán los listados provisionales de admitidas y excluidas que incluirán a la totalidad de las personas aspirantes inscritas en la convocatoria.

- La nueva publicación de las bases determina una nueva fecha límite para el

bat ezartzen du. Horregatik, eskabideak aurkezteko lehen epean izena eman zutenek, alegatutako merezimenduak aldatu nahi badituzte, iragarki honi erantsitako inprimakia aurkeztu beharko dute *ifaslaneskaintza@bizkaia.eus* helbide elektronikoaren bidez, behar bezala beteta, **eskabideak aurkezteko epe berrian**. GUFEk baieztatuko du, posta elektronikoz ere, merezimenduen inprimakia jaso dela.

cómputo de méritos, por lo que aquellas personas que se inscribieron durante el primer plazo de presentación de instancias que deseen modificar los méritos alegados deberán presentar, a través del correo electrónico *ifaslaneskaintza@bizkaia.eus*, el impreso anexo a este anuncio debidamente cumplimentado **durante el nuevo plazo de presentación de instancias**. El IFAS confirmará, también por correo eletrónico, la recepción del impreso de méritos.

- 2021eko martxoaren 23an argitaratutako behin betiko zerrendan onartutzat agertzen zirenek ez dute inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, aurreko puntuan merezimenduetarako aurreikusitakoa salbu.

- Quienes figuraban como admitidas en el listado definitivo publicado el 23 de marzo de 2021 no deben aportar ninguna documentación, a salvo de lo previsto en el punto anterior para los méritos.

- 2021eko martxoaren 23an argitaratutako behin betiko zerrendan baztertutzat agertzen zirenek dagokien dokumentazioa aurkeztu ahal izango dute orain hasten den eskabideak aurkezteko epean.

- Quienes figuraban como excluidas en el listado definitivo publicado el 23 de marzo de 2021 podrán presentar la documentación pertinente durante el plazo de presentación de instancias que comienza ahora.

Eta hala adierazten da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Lo que se expresa para su general conocimiento.

Bilbon, 2022ko martxoaren 24an / En Bilbao, a 24 de marzo de 2022

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO BURUA
LA JEFA DEL ÁREA DE SELECCIÓN Y PROVISIÓN

Sin./Fdo.: Mª José Larrinaga Artetxe